


FUNTSEZKO ELKARTEA



Aritz Sagarna
Itoitz Salaberria
Xabier Zamora
Olatz Sanchez

Sortu behar dugun enpresarako **FUNTSEZKO ELKARTEAK** sortzea ezinbestekoa da, hornitzaile eta bazkide sareak finkatzea, beraiekin aliantzak egitea alegia. Horrela, baliabideak lortu eta lana antolatu edo banatu ahal izango dugu.

Gure enpresa ideia inprimagailuak eta koadernatzaileak diren horretan, enpresa askorekin egin beharko genituzke aliantzak, izan ere, inprimagailu bat lortzearekin ez dugu nahikoa izango.



Alde batetik inprimagailuak. Batetik, **HP** enpresarekin aliatuko gara inprimagailuak lortzeko. Bestetik, **PAPRESA**rekin paperak lortuko ditugu eta **PRINK**ekin tinta lortuko dugu. Hiru hornitzaile hauek gugandik hurbil aurkitzen direnez, garraioan ez dugu gastu handirik egingo. Gainera inguruko eta herriko ekonomian eragina izango du gure proiektuak eta ingurugiroarentzat ere mesedegarri izango da.

Beste alde batetik, koadernatzaileak. Koadernatzeko makinak lortzeko **Soluciones PostPrinter** enpresarekin hitzartuko gara, behin makina horiek edukita **MKM** enpresari espiralak erosiko dizkiogu eta **STAPLES**i plastikoak. Hiru enpresa horiekin, koadernaketa osorik egitea lortuko genuke.

Horrez gain, jendeak inprimatu edo koadernatu nahi duenean ordaindu egin beharko duenez, banda magnetikoetan duten txartelak erabiliko ditugu erraztasuna eta erosotasunagatik, izan ere, erabiltzaile gehiengoak gazteak izango dira.

Metodo honetaz baliatu ahal izateko, txartelak lortu beharko ditugu. Horiek aktibatuta erabiltzaileak txartelean nahi adina diru sar dezake. Horretarako, **AKROCARD** enpresarekin elkartuko gara. Baina hori ez da nahikoa izango, banda magnetikoen irakurle bat ere behar dugulako txartela hortik pasa dezaten. Makina horiek egiteaz arduratzen den enpresa **Tecnipesa Identificacion SI** da eta gu horrekin lotuko gara.

Amaitzeko, aparailu elektronikoko hauek noizbehinka matxuratu egiten dira. Horregatik gure enpresak mantenuaz arduratuko den arduradun bat kontratatuko du, edozein arazo tekniko ahalik eta azkarren konpondu ahal izateko.

Aurretik aipatutako hornitzaile guztiak oso garrantzitsuak izango dira gure enpresa aurrera eraman ahal izateko. Hornitzailerik gabe ez genuke gure helburua lortuko eta ezinezkoa izango litzateke gure proiektua aurrera eramatea.

